

te enseguida la tutoría y la gobernacion del reino, presentándose despues á las Córtes de Palencia en 1313 con buen golpe de gente armada, logrando ser nombrado para aquel cargo juntamente con la reina doña María y el infante D. Pedro, y en su desempeño murió peleando bravamente contra los musulmanes en la vega de Granada en 26 de Junio de 1319.

En cambio, y por una especie de ley de compensacion, muy frecuente en la vida de la humanidad, la Señora D.<sup>a</sup> María Díaz de Haro, su mujer, consagraba toda su atencion y todos sus desvelos á labrar la felicidad y el bienestar del Señorío, en términos que mereció se la conociera con el renombre de D.<sup>a</sup> María Díaz de Haro *la Buena*. Pero habiendo de pasar luego á ocuparnos de los tratos y correspondencia mútua entre el Señorío y D. Alfonso el Onceno, dejaremos para entonces la relacion de los hechos que honraron y enaltecieron el mando de esta dignísima Señora.

GERVASIO OLIDEN.

(Se continuará.)

---

## DOM BOSKO.

---

*L' Unita Cattolica* deritzan Turingo gazetak dakartzi sinitsgai asko, baita katolikoek aldekoak ez diran gazetagilleek ere, denbora gichiz onontzik Jainkoak beragana deitu duen Dom Bosko zeritzan apaiz beneragarriaren onran: beste gertakari batzuen artean kontatzen du ondorengo tranze au, zeñean Dom Boskoren bizitza arkitu zan galtzeko irrisku aundian.

Jainkozko gizon au, bere kontura zeuzkatzian pobreen premiak estaltzeko erremedio billa, oñez egiñ oi zituen zenbat bidajeetako batetik itzultzen zala, eta illunduta gero baso batean pasatzean, atera zitayon bidera ichura gaiztoko gizon bat, eta egin zion gaitzgiliek egiñ oi duten agurra esanaz:

—«¡Dirua, edo bizia!

—Dirurik ez daukat, Dom Boskok eranzun zion, eta bizia, Jaungoikoak eman dit, eta Berak bakarrik kendu dizaket.

—¡Itz gichiago! apaiz jauna esan zion berriz lapurrak, ¡poltsa! edo bestela su egitera noakio.

Onetan Dom Boskok begiak lapurrari ongi ezarririk, arri eta zur egiñik, esan zion:

—¡Zu emen, eta lanbide lotsagarri onetan!

Ezagutu zuen gaitzgilte ura zala Turingo karzeletan preso egona, eta an egondu zan denboran berak Dotriña erakutsi ziona.

Eralleak ezagutu zuen denbora berean noren kontra alcha zuen arma, osotoro lotsatu zan, eta piška batean išillik egon ondoren, esan zion:

—Nere Aita, ez nion alako gauzarik egingo, berori zala jakin izan banu. Balegoke seguru, itzik esan gabe, utziko niola joaten.

—Orrenbestez ez naiz kontentu, ene seme, nai eta nayez utzi bear dezu bizimodu ori, ez gaizki usatu, geiago jainkoaren ontasunaz, eta egin penitentzia, beldur izanik eriotzako orduan ez dezula izango denborarik damutzeko. Aurreneko lana konfesatu egin bear dezu.

—Konfesatuko naiz.

—¿Noiz ordea?

—Aldedan lenena.

—¿Eta zergatik ez orain bertan? ¿Nola bizi zindezke une batean konzienzia anbesteraño estutzen dizuten gaiztakeria beltz ichusi oriekin?

Dom Bosko eseri zan arri gañean, aditu zion lapurrari aurrean be-launikaturik egin zion konfesioa, eta andik laister konfessore-penitenteak sartu ziran elkarrekin Turingo urian. Geroztik Dom Boskoren erasotzalleak etzuen lanik eman Tribunaletan».

¡O zeñ aundia dan Erljio katolikoaren itzal eta indarra!

MANUEL ANTONIO DE ANTÍA

(Traducido de la *Lectura popular* de Orihuela, correspondiente á Marzo de 1888).

